

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3440

*1668/2024 EBAZPENA, uztailaren 2koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Victoria Boado Varela andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Intentsiboko Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzen den aldi baterako, lau urte luzagarri.*

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 15eko 78/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Medikuntza Intentsiboko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko otsailaren 29ko EHAA, 44 zk. eta 2024ko martxoaren 5eko BOE, 57 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela María Victoria Boado Varela andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezker alde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Medikuntza Intentsiboko Zerbitzu Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Victoria Boado Varela andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezker alde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Medikuntza Intentsiboko Zerbitzu Sanitarioko Buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2024ko uztailaren 8a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ez baldin bada jazotzen luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat, eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

2024ko uztailaren 15a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2024ko uztailaren 2a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentea,  
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.